

Europako funtsen tranpa

Suspertze eta
Erresilientzia
Mekanismoaren
balorazioa



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) eta React-EU	3
3. Europar funtsak espainiar estatuan eta EAEn.....	6
4. Ondorioak.....	8
5. Alternatibak.....	8

1. SARRERA

Joan den uztailean Europar Kontseiluak ontzat eman zuen Batzordearen Next Generation EU plana (NGEU); honen xedea zen 750.000 milioi euro jartzea covid-19ak Europan eragindako egoerari aurre egiteko. Programa dator Europar Batasunaren 2021-2027 epealdiko aurrekontua indartzeko asmoaren baitan. Zenbateko hori, herrialde “zorrotz” eta hegoaldekoen artean izan zen lehia gogorraren ondoren, bi zatitan banatu zen: 390.000 milioi euro zuzeneko transferentzia gisa eta gainerako 360.000 milioiak mailegutuan. *Next Generation EU, Europako eredia aldatzen ez duen plana* izeneko dokumentuan analizatu genuen legez, finantziario bide biak oso baldintzatuta izango dira, eta ez diote erantzunik emango krisi sanitario, ekonomiko eta sozialaren ondoren dauden beharrezane.

2. SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIA MEKANISMOA (SEM) ETA REACT-EU

Pasa den irailaren 17an Europar Batzordeburu den Ursula von der Leyenek Next Generation EU programaren oinarria aurkeztu zuen: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, 672.500 milioi euro izango dituen (360.000 milioi mailegutuan eta 312.500 milioi itzuli beharrekoak ez diren transferentzia gisa). NGEUtik espainiar Estatuari esleitutako transferentzien zati handiena (72.000 milioi euro) mekanismo horren bidez iritsiko da (zehazki 59.000 milioi); beraz, Mekanismo honen analisia behar-beharrezkoa da behar bezala juzgatuko bada zer nolako politikak egin nahi diren. NGEUren beste zutabeetako bat, askoz txikiagoa jarriko diren 47.500 milioi euroekin, React-EU delakoa dugu. Funts hauek EBko ohiko funts estrukturalen gisakoak dira, esaterako FEDER edota Kohesio-Funtsak, eta berariaz esan ez arren baldintzatuta daudela, Sanchezen gobernuak argi esan du finantziario hau (hots, maileguak) “baldintza jakin” batzuekin jasoko direla. Funts hauek egikaritzeko arinagoak dira, eta espero da espainiar Estatuak horietatik 2021 eta 2022rako 12.400 milioi euro inguru jasotzea.

Beraz, baliabide kopurua inoiz ikusi gabea da, baina analizatu beharrekoa da, zuzeneko transferentzia zein mailegu moduan dela ere europar funtsak baldintza zorrotzen pean esleituko baitira.

SEMaren finantziarioa jaso ahal izateko Europar Batzordeak gidaliburu bat proposatu du, zeinetan zehazten diren herrialde bakoitzeko Suspertze eta Erresilientzia Planek zer ezaugarri nagusi izan behar dituzten. Gidaliburu zabala da, eta estatuetakoko gobernuetako proiektuak aurkezterakoan lan handia emango die. Berritoki gogoratu beharra dago planak estatuetakoko gobernuetako aurkeztuko dituztela; beraz, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ez daukate benetako interlokuziorik Europar Batzordearekin. Hartara, Pedro Sanchezen gobernuak hartuko ditu erabakiak espainiar Estatuan. Dagoeneko iragarri dute ez dela kuota autonomikorik izango eta funtsak zuzenean espainiar Gobernuak kudeatuko dituela, proiektu konkretuak finantzatzuz.

a) SEM baldintzatuta dago

Europar Batzordearen dokumentuak agerian uzten du politikak baldintzatuta daudela. Programaren funtsak jasotzeko Europar Batzordeak exijituko dituen erreformak aplikatu behar dira. Dokumentuan berean esaten den moduan, halako erreformak izan daitezke pentsioen edo lan merkatuaren erreforma, edota austeritate aurrekontu-politikak. Dokumentuak argi dio funtsak eta erreformak guztiz lotuta joango direla. Beraz, duten intentziorik ez da ezkutatu.

Edonola ere, hau ez da berria; NGEUri buruzko iritzia eman genuenean kritika egin genion horri. Orain Batzordeak erreformak egiteko eskaria zehaztu egin du, esanez SEM eta Europar Seihilekoa guztiz lotuta daudela. Dokumentuak dioenez, herrialdeek ez dute 2021rako Europar Seihilekoaren ageriko gomendiorik jasoko (Aurrekontu-Egonkortasunerako Ituna etenda dagoelako urte horretarako), baina planak egiterakoan 2019 eta 2020rako eman zirenak aintzat hartu behar dituzte.

Espainiar Estatuak 2020 itxi dezake %12ko defizit publikoa eta BPGaren %120ko zorra duela; bada, 2019 eta 2020rako Europar Seihilekoaren gomendioak setaz errepikatu dizkiote: gastu publikoa murriztu beharra, pentsio sistemaren etorkizuna ziurtatzea, eta baldintza ekonomikoek aukera ematen dutenean epe ertaineko zerga-politikak aplikatzea zorra jasangarria izan dadin. Honek esan nahi du espainiar Estatuak SEMaren markoan gauzatu nahi duen proiektu orok langile-klasearen bizimoduari erasango diola.

b) EBren politikak areagotzeko abagunea

Agian berriena da zer nolako proiektuek izango duten Mekanismoaren finantziarioa (mailegu nahiz transferentziak direla ere) jasotzeko aukera.

Batzordeak herrialdeak animatu ditu erreformak edo inbertsioak egin ditzaten 7 arlotan, guztiak ere trantsizio ekologikoari eta digitalizazioari lotuak. Besteak beste, teknologia garbi edo berriztagarrien erabilera, eraikinen energia-eraginkortasunaren hobekuntza, garraio iraunkorra, banda zabaleko eta 5G zerbitzuak, Administrazioaren digitalizazioa, ahalmen informatikoaren hobekuntza edota hezkuntza sistemaren digitalizazioa. Aipatutako arloak kontutan izanik, inbertsioak bideratu beharko dira kapital finkora (azpiegiturak, eraikinak, I+G, patenteak), giza-kapitalera (osasuna, gizarte-babesa, hezkuntza eta prestakuntza) eta kapital naturalera (energia-eraginkortasuna eta berriztagarriak, klima aldaketari aurre egiteko neurriak).

Testua idatzita dagoen moduan inbertsioak era batekoak edo bestekoak izan litezke, baina inola ere ez dituzte konponduko Covid-19ak eragindako krisiak agerian utzi dituen beharrian sozial, ekonomiko, eta sanitarioak. Bereziki nabarmentzen da ekonomiaren digitalizazioa eta *I tun Berdea* delakoa (gomendatzen da gutxienez funtsen %20 eta %37, hurrenez hurren, atal horietara bideratzea), pandemiaren eragina gehien pairatu duten sektoreen aurretik (osasungintza, hezkuntza edo gizarte-prestazioak).

Proiektuek beti ere erreformak eta finantzia daitezkeen proiektuak lotu behar dituzte, eta helburu zein mugarriak zehaztu, epemuga 2026. urtea izango delarik; urte horretan bukatuko litzateke SEMaren finantziazioa. Mugarri eta helburu horiek islatu behar dute inbertsio eta erreformak nola gauzatzen diren, egiaztagarriak izan behar dira eta kronologia urratsez urrats adierazi. Mugarri eta helburu multzo bat behar bezala iritsiz gero dirua iritsiko da. Estatu kideren batek bete ezean Batzordeak finantziazioaren zati bat ken dezake, edo guztia. Beraz, funts horiek jasotzekotan gobernu eskatzaileen politikak zeharo interbenituta egongo dira. Hau 6 urtez, funtsak 2021 eta 2026 bitartean banatuko baitira.

SEMAk aipatzen dituen baliabideak bideratzeko orientazioak pandemia aurretik Batasunak zituen politika estrategikoen parte ziren. Esaterako, *Europar Itun Berdea* edota *Aro digitalari egokitutako Europa*. Europar Batasunarentzat oraingo hau abagune ezin egokiagoa gertatu da aspaldidanik agendan zituen egitasmo estrategikoak ezartzeko.

c) Korporazio handientzako onura

SEMaren inguruko gai nagusietako bat da nortzuk izango diren planen onuradunak. Europan milioika pertsona krisiaren ondorioak pairatzen ari denean eta gobernuak defizit publiko puztu bati aurre egin behar diotenean, europar baliabide ekonomikoak bideratuko diren arloek ez dituzte osatzen pertsonen beharrian sozialak, ez eta krisi sanitario, ekonomiko eta sozialari erantzuna emateko aurrekontu publikoak ere. Antza, onuradunak beste batzuk izango dira. Proiektu handiak aurreikusten dira energia garbi eta berriztagarrietan, 5G teknologian, digitalizazioan edota teknologia garbietan... Nabarmena da enpresa handien eta multinazionalen interesei mesede egin nahi zaiela, enpresa pribatuen proiektuak diru publikoaz finantziatuz (zorioneko lankidetzak publiko-pribatua, zenbait diskurtso eta ildo politikatan hain modakoa dena).

d) Konplexutasuna eta arriskua

Funts hauek eskatu nahi dituzten estatuei, esaterako espainiarrari, agertuko zaien beste zailtasun bat da planen aurkezpenak duen konplexutasuna. Batzordeak estatu kideentzat egin duen gidaliburuak esaten du planak xehetasun handiz aurkeztu behar direla, beren helburu, inbertsio mota eta erreformekin, bete beharreko helmuga eta mugarriekin eta epemuga zorrotzak errespetatuz. Espainiaren kasuan dagozkion 140.000 milioiko balioa duten egitasmoak aurkeztea ez da erraza izango. Europako baliabideen kudeaketa orain arte nolakoa izan den ikusita, ez dauka itxura onik. Esaterako, FEDER Funtsetatik -hots, EBk izan duen diru-sail handienetakoa- Espainiak soilik %26 gastatu ahal izan du 2014-2020 epealdian. Burokrazia eta kontrol maila oso handia da. Hau zehatz betetzea oso zaila da, edo ezinezkoa; ondorioz, presioa oso handia izango da, areago jakinik mugarrietara ez iristeak finantziazioa erretiratzea eta ondoren itzuli beharra ekar dezakeela. Esan daiteke benetan funtsak eskatzen dituztenei xantaia eragiteko tresna bat dela, esku hartzea areagotuko delarik.

Konplexutasunaz gainera gogoratu beharra dago uztaileko negoziazioan herrialde "zorrotzek" ezarri zutela herrialde bakoitzak egindako erreformek Batasuneko 27 kideen oniritzia jaso behar zutela. Honek esan nahi du iparraldetik lupaz behatuko direla hegoaldeko estatuek garatu nahi dituzten proiektua. Ipar eta hegoaren arteko haustura ez da gainditu. Edozein moduz SEMera jotzea herrialde batzuentzat tranpa bilaka daiteke.

e) Dirua berandu dator

Aipatu beharrekoa da SEMeko dirua inondik ere beranduegi iritsiko dela. Hoberenera jota, transferentzien lehenengo zatia, %10, 2021eko lehen seihilekoan. Baina hau gerta dadin Europar Parlamentuak eta Kontseiluak proposamena ontzat eman behar dute. Oraingoz bien arteko posizioak oso aldentuta daude; beraz, finantziazioa ez da iritsiko 2021eko bigarren seihilekorarte. Herrialdeek apirilaren 30era arteko epea dute proiektuak aurkezteko, baina zirriborroak urriaren 15erako prest izan behar dira.

Edonola ere, zenbatekoak guztiz eskasak izango dira estatu askorentzat, hauek epe laburreko finantziazioa behar baitute, eta gainera ez dira haien beharrian errealak osatuko. Transferentziak 2021 eta 2023 bitartean ordainduko dira, mugarriak betetzeko baldintzapean. Mailegu bidezko finantziazioa eta planen jarraipena 2026raino luzatuko da; urte horretan SEMeko planak garatuta behar dute.

3. EUROPAR FUNTSAK ESPAINIAR ESTATUAN ETA EAE-N

Ikusienez, europar funtsek herrialde eskatzaileen administrazioak estutu egingo dituzte, gobernuetara baitagokie funtsak kudeatzea. Urriaren 7an Pedro Sanchez presidentek Espainiar Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana aurkeztu zuen; hau Bruselara bidaliko dute datozen asteetan. Eskenaratzearen xedea propaganda egitea zen, eta datozen urteetan bete beharreko promesak egin zituen. Besteak beste, 800.000 lanpostu sortuko direla, baliabide guztien %37 eraldaketa ekologikora edota %33 eraldaketa digitalera bideratuko direla. Hori guztia, legegintzaldia 2023an amaitu baino lehenago.

Espainiar Estatuari NGEU planetik 140.000 milioi euro badagokio ere, plan honetarako 72.000 milioi euro jarri dira (SEMaren 59.000 milioiak eta React-EU programaren 12.400 milioiak). Gogoratu, bestalde, gainerako 68.000 milioiak mailegu moduan iritsiko direla, eta hauek antza aurrerago eskatuko dira. Datozen urteetan transferentziak modu okerrean exekutatu badira espainiar Estatuak arazo latza izango luke. Presioa egundokoa izango da. Haatik, lehenago ikusi dugun bezala, transferentziek datozen urteetako politika ekonomikoa ere baldintzatuko dute. Gainera, gobernuak bere kontu funts europarretako 27.000 milioi euro aurreratu ditu aurrekontuetarako, esnezalearen kontuak eginez, nahiz eta ez dagoen guztiz argi funtsak urte horretan banatuko direnik.

Gobernuaren asmoa da 2023rako Covid-19aren aurreko egoeran zegoen hazkunde erritmoa berreskuratzea. Alabaina, urte oparoetan espainiar Estatuak arazo handiak izan zituen zor publikoa murrizteko; beraz, datozen hiru urteetan jaitsiera handi bat lortu ezean, mailegu bidezko funts europarrak oso karga handia bilakatuko dira.

Moncloa Plan guztia gauzatzeko ardura hartu du bere gain, eta hori aho biko ezpata izan daiteke. Halere, proiektuen lidergoa bere esku izan arren, gobernuak autonomia erkidegoen eta udalen lankidetzaren erabilera, eta administrazio horiek eginkizun garrantzitsua izango dute planak exekutatzeko. Gobernuak, bestalde, enprekin zuzenean izango du interlokuzioa, hauetako askok parte hartuko baitute proiektuetan.

Gobernuaren eta autonomia erkidegoen arteko lankidetzaren EAEn nabarmena izan da. Duela zenbait aste Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapena, Azpiegiturak, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuak enpresak animatu zituen funts europarretan parte hartzera; non, eta PricewaterhouseCoopers (PwC) aholkularitzak Iberdrola Dorrean antolatu zuen ekitaldi batean. Tapiak aldeztu zituen eraldatze gaitasuna duten proiektuak, Euskadiri jauzi kualitatibo bat emateko aukera emango diotenak. Astebete beranduago *Garak* argitaratu zuen informazio batean aipatu zituen Eusko Jaurlaritzak zeintzu proiektu igorri zizkion Sanchezen gobernuari, funts europarrak eskatze aldera. Bada, antza agiri hau PwC enpresak berak idatzi zuen, europar eremuko laguntzak erakunde eta enpresentzat kudeatzen dituen; honen buru Asier Atutxa dago.

Esandako proiektuak guztira 66 dira, 3 sailetan banatuta, sustatuko dituzten erakundeen baitan: Euskal erakundeen proiektu traktore publikoak, Estatuko Gobernuaren proiektu traktore publikoak eta proiektu traktore publiko-pribatuak. Guztira, kalkuluen arabera proiektu hauen kostua 10.228 milioi euro izango litzateke 2020-2024 eperako, eta 11.603 milioi 2030 urteraino.

Nabarmen daiteke aurkeztutako aurrekontuaren laurdenetik gora, hau da, Estatuko Gobernuaren proiektu traktoreei dagokiena, AHT eta honen inguruko lanetara bideratuko litzatekeela, diotenez, trantsizio ekologiko, energetiko eta ingurumenekoarekin lotua. Larria da pentsatzea EBk berak zalantzan jarri duen proiektu bat, duen gainkostua, ingurumeneko eragina eta errentagarritasun ekonomiko eta sozial urria medio, europar funtsekin finantziatzea. Horrek ez luke ez hanka, ez bururik izango.

Oso larria da ere aurkeztu diren beste laurden bat (2.000tik gora milioi euro) enpresa handien esku uztea, esaterako Iberdrola edo Petronor; hauek dirutza publikoa jaso dezakete beren proiektu pribatuatarako (ion-litio lantegi erraldoia edo hidrogeno korridorea). Honek berretsi egiten du aurrez aipatu genuena: europar funtsek enpresa handiei egingo zietela mesede; Eusko Jaurlaritzaren lehen asmoa horixe bera da.

Deigarria da zerrendan aipatzen diren 58 proiektuetatik 30 "garapen kontzeptual" fasean egotea (AHTari lotutako 8 proiektuak martxan daude). Izan ere, Europar Batzordearen arauak kontrakoak baitira, prestakuntza aurreratua duten proiektuak lehenetsi behar diren heinean. Adibidez, enplegua sortzeko eta lurralde-kohesiorako euskal erakundeen proiektu guztiak "garapen kontzeptual" fasean daude, eta trantsizio ekologiko eta ingurumeneko 6 proiektuetako 5 ere bai.

Soilik oso aurreratuta edo martxan dauden proiektuak finantziatu nahiak agerian uzten du gezurra: funts hauekin eredu aldaketa bultzatzeko baliatuko direla. Aitzitik, esan daiteke eredu neoliberalak finkatzeko erabiliko direla, multinazional handien negozioa hauspostuz; hauek izango dute onurarik handiena eta beren interes ekonomikoak lehenetsi egingo dituzte gizarteko kolektiborik ahulenen kaltetan.

Deigarria da Asier Atutxa buru duen PwC enpresak, zeinak proiektuen koadroa egin duen, Ekintzailatza Zentroaren proiektua ere sartzea, zeina BBVA eraikinean kokatuko den, eurek kudeatuko duten eta 26,5 milioi euroko kostua izango duen .

Haatik, euskal unibertsitate edo ikerketa zentroyen proiektuak baztertu egin dituzte. Halaber, Gipuzkoako eta Arabako Aldundien proiektuak. Dokumentua plazaratu eta egun batzutura Gipuzkoako Aldundiak funtsak eskatzeko planen berri eman zuen, bide-azpiegiturekin oso lotuak.

Kontutan izan beharreko beste xehetasun bat da proiektuak egiterakoan ez dela parte hartzerik izan. Batzordearen gidaliburuak eskatzen die herrialdeei planak egiteko lana beste eragile sozialekin parteka dezatela, eta interlokuzio sozial arina sustatzea. EAEn ez da halakorik gertatu. Badakigu Jaurlaritzak bidali duen koadroa proposamena dela oraindik, eta bertan jasotako proiektu askok ez duela funts europarren finantziatorik izango, baina deigarria da gobernuaren asmoak ezagutzeko.

Guztiarekin ere, larriena da europar eredu eta funtsen izaera ez dela zalantzan jartzen ari; arazo hau are kezagarriagoa da ezker politikoa ere hortan jausten bada. Kontua ez da funts horiek zertara bideratu behar diren eztabaidatzea. Eredua argia da: maileguak eta transferentziak erreforma estrukturalen eta aurrekontu-austeritatearen truke. Eta proiektuak diren modukoak dira.

Kontutan izan behar dira funts hauek eskatzeak estatuentzat, esaterako Espainiarentzat, eta bide batez Euskal Herriarentzat izan ditzaketen ondorio ekonomiko, sozial eta ekologikoak. Nortzuk izango dira, beti bezala, diru publikoaren onuradunak? Nortzuk kaltetuak? Zein arlori ematen zaio

lehenetasuna (digitalizazioa, energia) eta zein geratzen da bigarren planoan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-gastua)?

4. ONDORIOAK

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa da ohiz kanpoko NGEU planaren %90, zeinarekin covid-19ak eragindako krisiari aurre egin nahi zaion. Noski, mailegu moduan jasoko diren 360.000 milioiek eragingo dute herrialde batzuen zorra haztea, eta horrek baldintzatu dezake datorren hamar urteetako politika ekonomikoa. Baina itzuli beharreko 312.500 milioiak ere oso baldintzatuta daude, arestian azaldu dugunez.

SEMAk Europako logika neoliberal berberari jarraitzen dio; Batasunean egin beharreko proiektu estrategikoak gailentzen dira, langile-klasearen beharrezkoen kaltetan, hots, krisiaren eragin latzena pairatzen dutenen kaltetan. Ezin da onartu dirutza publikoarekin korporazioei eta kapitalari mesede egitea, pertsonak baztertuta.

Europak lehengoari eusten dio: finantziarioa herrialdeetan erreforma estrukturalak egiteko baldintzapean iritsiko da. Planetan aintzat hartu behar dira aurreko urteetako Europar Seihilekoaren gomendioak; beraz, hegoaldeko herrialde askok neurriak hartu behar dituzte defizit publikoa eta zorra murrizteko. Estatuak ez lukete ontzat eman beharko austeritate-errezeta hauek ezarri beharra.

Herrialde batzuk nekez aurkeztu ahal izango dituzte planak. SEMeko planak garatzeko ia betarik ez dago, eta diru kopuruak oso handiak dira. Estatu batzuk agian tranpa batean jausiko dira: Batzordearen gidaliburuko eskakizunen arabera proposamenik ezin aurkeztu. Beraz, litekeena da batzuei finantziarioa ukatzea, edota behin inbertsioak hasita itzuli behar izatea.

Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren 2021eko eta hurrengo urteetako aurrekontuek ez dute europar funtsik jasoko, edo hauek oso urriak izango dira. Batetik, espainiar Estatuak zuzenean kudeatuko dituztelako, eta bestetik, ez daudelako pentsatuta EAEko eta Nafarroako erakundeen esku dauden zerbitzu publikoak zein gizarte-prestazioak finantziatzeko. Horregatik, ezin da uste izan diru-bilketan gertatu den zuloa funts horien bidez estaliko denik. Imajinario kolektiboan halakorik elikatzea jendarteari iruzur egitea da, eta lokartzeko saio bat, gero egin nahi diren murrizketen bidea urratzeko. Hauek saihesteko zerga-erreforma bat behar da, enpresen etekinen, kapitalen eta ondasunaren gaineko zergen igoera handia ezartzea, ELAk joan den maiatzean proposatu zuen haritik.

Jaurlaritzak aurkeztu duen lehen zerrenda bere lehenetasunen isla argia da: Agortuta dagoen eredu neoliberalari eutsi eta langile-klasearen gainera enpresa handiei laguntza ematea. Eztabaida ez da gobernantza partekatu eredu bat proposatzea erabakitzeke gure herriko zein proiektu estrategikoak diren funts europarrekin finantziatu beharrekoak. Funtsezko eztabaidak zalantzan jarri beharko luke funts europarren taxutzeko modu honen atzean dagoen eredu. Izan ere, Europak ahal den gutxien aldatu nahi du, funtsean ezer alda ez dadin.

5. ALTERNATIBAK

ELA eredu aldatzeko alternatibak planteatzen ari da. Gainera, Europar Batasunaren benetako aurpegia agerian uzteko une egokian gaudela uste dugu. Ez da berria zenbait posizio ideologikok Batasuna eta haren gobernantza zalantzan jarri izana; aitzitik, EB sortu zenetik mahai gainean jarri nahi izan den eztabaida da, eta are gehiago Maastricheko Tratatu konstituzionalizatzearen bidez

norabide neoliberallean sakondu zenean. ELAk bere garaian egindako erreferendumean ezezkoaren aldeko kanpaina egin zuen.

Korporazio handiek (presio lobbyei esker) eta bankuek euren logika neoliberala inposatu zuten, merkatu bakarraren eta moneta batasunaren onurak lortuz. Horren ondorioz, gobernuek subiranotasuna galdu dute, galeren sozializazioa eta bankuen erreskateak eman dira, doikuntzak, erreformak, pribatizazioak eta abar egin dira.

Emaitza ezaguna da: ipar-hegoaren polarizazioa, desberdintasun sozialaren areagotzea, aberastasunaren banaketa bidegabea, zerbitzu publikoen narriadura, etab. Europar Batasunaren beraren konfigurazioak, Europako Batzordearen gidalerroak eta kontrolak helburu bakarra dute, eliteen eta botere oligarkikoen interesen defentsa, hain zuzen.

Beraz, ez du ematen Europar Batasunaren norabidea aldatuko denik, ereduak bat egiten baitu gizartean ematen ari den emaitzekin.

Baina argi dago alternatiba bat behar dela, maiatzean aurkeztutako "benetako irteera bat" dokumentuan jasotzen den bezala. Aldaketak norabide honetan joan behar du:

- Europako Banku Zentralak gobernuen zuzeneko finantzaketa baimentzea. Horrek Tratuaren 123. artikulua indargabetzea dakar, berariaz debekatzen baitu aukera hori.
- Europako esparruan eta estatu bakoitzean konstituzionalizatu nahi izan den aurrekontu-esparrua haustea: defizitaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren mugak amaitzea; MEDE bezalako programen bidez ezartzen diren Europar Batasunaren zaintza- eta kontrol-mekanismoak ezabatzea; atzera egitea Konstituzioaren 135. artikulua eta horren ondoriozko aurrekontu- eta finantza-egonkortasunari buruzko legeen erreforman. 2020. eta 2021. urteetarako Egonkortasun eta Hazkunderako Ituna bertan behera uzteak agerian uzten du itun horren ustezko ondorio positiboengainua, eta honek datozen urteetako baldintzak gogortzea ekar dezake,
- Europako politiken baldintzazkotasuna ezabatzea
Gobernuei helarazten zaizkien funts europarrek (kredituen edo transferentzien bidez) ez dute inolako baldintzarik izan behar lan- edo gizarte-eskubideak murrizteko, ezta aurrekontu-austeritateko politikak aplikatzeko ere.
- Zor publikoaren auditoretza, ordainketa atzeratzea eta legitimoa ez den zatia kitzatzea
Esan dugun bezala, krisi hau Europar Batasuneko zor publikoa oso handia den testuinguruan kokatzen da. Neurri handi batean, 2008ko krisiaren ondoren bankuak erreskatatu eta kapital-zergak murrizteak, zorra ordaintzearen lehentasuna gizarte-premien estalduraren gainera ezartzea ekarri baitzuen. Zorra ikuskatzeko prozesu herritar bat egin behar da, zorraren ordainketaren luzamendutik abiatuta, eta erakundeek konpromisoa hartu behar dute legez kontraktatzat jotzen den zorraren zatia ez ordaintzeko.
- Covid tasa
Krisiaren kostu ekonomikoak, funtsean, errenta handienengatik, enpresengatik eta kapitalagatik ordaindu beharreko zergen gehikuntza baten bidez ordaintzea, aurrekontu publikoak nabarmen handitzea ahalbidetzeko. Saihestu egin behar da defizit publikoaren igoerak gerora egiturazko doikuntzak ekartzea. Horrek zerga-politikaren erabateko aldaketa dakar. Kapitalen mugimenduei ere zerga gogor bat ezarri behar zaie.
- Paradisu fiskalak eraistea
Paradisu fiskalak ez daude soilik paradisu uharteetan, horietako batzuk Europar Batasunaren barruan aurki ditzakegu. Batzordearen proposamen bakar bat ere ez da hauek

desegiteari buruzkoa. Tax Justice Network enpresak egindako ikerketa baten arabera, AEBetako enpresek 25.000 milioi euro inguru ordaintzeari uzten diote urtero zerga korporatiboetan, Luxenburgo, Irlanda eta Herbehereak bezalako paradisu fiskalen bidez. Eta, ihes fiskalari dagokionez, Richard Murphy Londresko Unibertsitateko irakaslearen "arrakala fiskala Europan" txostenaren arabera (txosten hori EBk berak onartu zuen), urtero bilioi bat euro inguru sartzen dira Europan modu horretan (Espainian, urteko ihes fiskala 60.000 milioi eurokoa da, 2008ko krisian bankuei egindako erreskatearen zenbateko bera). Beharrezkoa da paradisu fiskalak erabat desegitea eta zerga-ihesa gehiago kontrolatzea. Ikusi berri ditugun zifra horiek nabarmen gainditzen dute, urte bakar batean, Next Generation EU berreraikuntza-funtsera bideratutako zenbateko osoa, funts hori gauzatzea erabakiko den urteetarako.

- Benetako trantsizio ekologiko eta energetiko baten alde borrokatzea
ReCommons: Europako herrien internazionalismo berri baten aldeko adierazpena
dokumentuaren ildotik, trantsizio ekologikoa eta energetikoa egitura sozio-ekonomiko nagusien kontrol publiko-komunitarioan (adibidez, energia), ekoizpen eta kontsumo kapitalistaren gizarte- eta ingurumen-inpaktuaren murrizketan, tokiko ekoizpenaren garapenaren sustapenean eta trantsizio energetiko egonkorra eta kontrol demokratikoaren mende egotea ahalbidetuko duten mekanismoetan oinarritu behar da.
- Eraldaketa digitala pertsonen zerbitzura jartzea
Eraldaketa digitalaren onurak klase-osagai bat du, erabilera noren mesedetan izango den kontuan hartzen badugu. Pentsa liteke korporazio handiei langileriarri baino mesede handiagoa egin diezaiekeen arloa dela. Horregatik, beharrezkoa da eraldaketa digitalak pertsonen bizi-kalitatea hobetzera bideratzea eta ez kapitalaren zerbitzura jartzea. Eraginkortasun teknologikoak lanaldia murrizten eta zaintzak hobetzen lagundu behar gaitu.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA